

ANA TELLERIA, OGASUN BATZORDEBURUARI

2023 TASA ETA ZERGA PROPOSAMENAK

EH Bilduk, Udal Gobernuaren zergak izoztearen proposamenaren aurrean, hurrengo proposamenak aurkezten ditu aintzat hartuak izan daitezen:

Eibarren, 2022ko irailaren 13an

Izp.: **Gorka Errasti Bernedo**
Eibarko EH Bildu udal taldea

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA: 2023ko aurrekontuari begira, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaindu ahal izateko dirulaguntza ildo sortzea.

Udalerri batzuetan indarrean daude dirulaguntza ildo hauek. Zerga justuenak pertsona bakoitzak bere dirusarreraren arabera ordaintzen dituenak izango lirateke, baina oraindik ezinezkoa da horrelako ordainketarik egitea, Arau Foraletan aldaketa sakonak egin ezean. Beraz, OHZ ordaindu ahal izateko dirulaguntza ildo martxan jartzea planteatzen dugu, 2023ko Aurrekontutik aurrera. Dirulaguntza berri honek egoera zaugarrienean dauden familia eibartarrek udal zerga handiena ordaintzen lagunduko luke.

Nahiz eta zehazki tasa aldaketa proposamen bat ez izan, egokia deritzogu dirulaguntza honen beharraz orain aritzea, OHZren dirubilletan eragina izango lukelako datozen urteetatik aurrera. Premia printzipioa betetzen du, hainbat eibartarrek zailtasunak dituztelako ohiko gastuen ordainketak egiteko, OHZ barne eta dirulaguntza honek gastu horiek arinduko lituzkelako. Segurtasun juridikoa ere guztiz betetzen, hainbat Udalek horrelako dirulaguntzak aspalditik martxan jarri dituztelako. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasun printzipioak beteko lirateke Udalak indarrean dituen dirulaguntza guztien berrikuspen integrala egingo balitz.

Ondoko taula aplikatzea planteatzen dugu, Pasaiaiko Udalean aplikatzen dena (bertan, 2009an sortu zuten dirulaguntza ildo):

Kideak / Miembros	<= LGS/SMI	<= LGS/SMI + %10	<= LGS/SMI + %20	<= LGS/SMI + %30	<= LGS/SMI + %40	<= LGS/SMI + %50	<= LGS/SMI + %60
1-2	% 90 90 %	% 85 85 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %		
3	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %	
4	% 90 90 %	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %
=> 5	% 95 95 %	% 90 90 %	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %

Pasaiaiko Udaleko dirulaguntzari buruzko informazioa esteka honetan: <https://www.pasaia.eus/documents/90521/3034910/Normativa+de+Subvenciones.pdf>

Gainera, PSE-EE, EAJ-PNV eta EH Bildu udal taldeek akordioa sinatu genuen 2022ko Ordenantza Fiskalei begira. Akordio horretako 4.C atalak, ondokoa dio: "3 taldeen artean, OHZren ordainketari aurre egiteko zailtasunak dituzten eibartarrei laguntzeko diru-laguntza lerro bat aztertzea adostu da, udal aurrekontuen testuinguruan abian jartzeko". EH Bilduk ez du azterketa honen berri izan eta 2022ko aurrekontuetan ez da dirulaguntza ildorik martxan jarri.

2. ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL IHARDUERAK BURUTZEAGATIK EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAN GEHIKUNTZA BERRI BAT: Zine-bonoa sortzea

Aipatutako ordenantzan berrikuntza bat gehitzea eta berrikuntza honi prezio publikoa ezartzea. Ordenantzako horretako Coliseoaren Laguna txartelaren epigrafearen ondoren, ondokoa gehitzea:

Zine-bonoa:

- *Arrunta: 12€/hilabetean*
- *Coliseoaren Laguna txartelarekin: 10€/hilabetean*

Proposamen zehatza Coliseo Antzokiko zine emanaldietarako zine-bonoa sortzea da, zine zaletasuna areagotzeko, zine sarrerak merketu, kulturaz gozatzeko eskubidea zabaldu eta unibertsalizatzeko eta Coliseoko zine emanaldietara joaten den herritar kopurua handitzeko.

Zine-bono berri hau herritarrak interesatzen zaion hilabetean erosiko luke eta hilabete osoan programaturiko pelikulak ikusteko aukera zabalduko lioke. Pelikula bakoitzerako sarreraren prezioa murriztuz. Gainera, planteatzen dugun zine-bonoa ez litzateke nominala izango, baizik eta transferigarria.

Ermuko udalean aspalditik indarrean dagoen zine-bonoaren eredia Eibarko udalean aplikatzea da proposamenaren helburua.

Planteamenduak proportzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, zerbitzu publiko berri batetarako prezio publiko berria sortzen delako eta horretarako aukera dagoelako. Gainera, hainbat udalek ere horrelako zine-bonoak eskaintzen dituztelako. Premia printzipioa ere beteko litzateke, batetik, eibartarren zati bati kulturaz gozatzeko eskubidea bermatzen zaiolako eta bestetik, Coliseoko zine areto eta emanaldiak betetzeko beharra dagoelako. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasun printzipioak beteko lituzke ere, nahiz eta sarrera arruntaren prezioa murriztu, sarrera gehiago saldu eta zinea herritar gehiagok erabiliko luketelako. Gardetasun printzipioa jarraituz, Eibarko Udalak aldaketa proposamen hauek argitaratuko ditu informazio publiko bitartez.

3. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAN BERRIKUNTZA: Udal Marrazki eta Zeramika eskoletako tasetan herritarren diru-sarreraren arabeko hobari taula txertatzea eta hobariak handitzea

Udal eskoletan ematen diren klaseei dagozkien tasak epigrafearen barruan, Udal Marrazki eta Zeramika eskoletako tasa zerrenda dago jasota. Baina tasa hauek eguneratze orokor bat eta berrikuntza bat behar dutela uste dugu.

Hainbat tarifa mota daude jasota (familia ugariena, hainbat kideen matrikularena, guraso bakarreko familiena edo eta familiaren diru-sarreraren arabekoak). Diru-sarreraren arabeko tasak %50eko deskontua izaten du eta Dirusarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familietako adingabeek ere, %75eko deskontua dute matrikuletan.

EH Bilduren proposamenak Marrazki eta Zeramika eskoletako tasak sinplifikatu eta hobariak handitzea du helburu. Gainera, DBE edo RGI jasotzea deskontu edo hobariak jaso ahal izateko frogatzea ia bakartzat bezela atzean uzteko ordua da eta justizia sozialera bidean, udalaren eskumeneko tasetan behintzat, ordua da familia unitatearen diru-sarrerak kontutan hartzeko. Gainera, beste hainbat tasetan azken urteotan gehitu dugun bezela, familia ugari guztiak ez dira berdinak eta justuagoa da, batetik hau aintzat hartzea baina baita, familiak dituen dirusarrerak ere. Guraso bakarreko familian ere antzeko zerbait gertatu ahal den ere, guraso bakar izateak duen karga ere kontutan hartu beharra dagoela uste dugu eta planteatzen dugun hobariak jasotzeko diru-sarrera taula berrian familia mota hauei keinu bat egingo zaie.

Laburbilduz, indarrean dauden tasak sinplifikatu eta hobari handiagoak gehituko genituzke, beti ere familia edo pertsonen diru-sarreretan oinarritua. Eskatzaile edo matrikula bakoitzaren egoera justifikatu ahal izateko eskatu beharreko dokumentu eta agiriak, baldintza zehatzak, betebehar minimoak... teknikariek zehaztu beharko lituzkete. Planteatzen ditugun hobari berriak Usurbilgo Udaleko 11. Ordenantza Fiskalean daude oinarrituta, hain zuzen ere, udal zerbitzu publikoen tasa eta prezio publikoetako hobariak arautzen dituen.

Proposamena (adibide bezela Marrazki Eskola jartzen dugu baina Zeramika Eskolako aukeretara ere moldatu beharko da proposamena):

1. Marrazki eskolaren tasak

- *Umeak*

- o Eibarren erroldatuak: 191,86€

- Eibarren erroldatuak: familiako hainbat kideren matrikulak: 143,89€
- Erroldan ez daudenak: 292,61€

- *Helduak:*

- Eibarren erroldatuak: 256,55€
- Eibarren erroldatuak: familiako hainbat kideren matrikulak: 192,42€
- Erroldan ez daudenak: 391,28€

Aurreko erreferentzia tasetan, familia unitateen diru-sarreraren arabera hobariak eskainiko dituzte Zeramika eta Marrazki eskolek, ondoko taula jarraituta:

Bizikidetz-unitatea	%90eko hobaria	%75eko hobaria	%50eko hobaria
1	<14.861	14.861-16.888	16.889-20.265
2	<19.454	19.454-22.021	22.022-26.480
3	<21.211	21.211-24.183	24.184-29.047
4 edo gehiago	<22.832	22.832-26.074	26.075-31.208

Guraso Bakarreko Familien kasuan, bizikidetz-unitate erreala +1 izango da bizikidetz-unitatea zutabeko erreferentzia.

Proporzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak beteko lituzke proposamenak udal eskumeneko eskoletako tasetan hobariak txertatzea eta tasak moldatzea udal eskumena delako. Gainera, horrelako hobariak hainbat udaletan indarrean daude. Premia printzipioa ere betetzen du, herritarrentzako tasa justuagoak sortzen direlako, familia unitatearen diru-sarreraren arabera moldatuta. Estrukturalak diren krisi garai hauetan, udal zerbitzuetan hobariak handitzeko apustuak, familien egoera ekonomikoa arindu eta kasu honetan, kultura eta aisialdiaz gozatzeko eskubidea ahalbideratuko lieke hainbat herritarrei. Askotan, orainarte aukera hori izan ez dutenei ere. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasun printzipioak beteko lirateke zeren nahiz eta batetik, matrikula tasa batzuk txikitu, bestetik, eskaintza unibertsalizatu, herritar gehiagorentzat ekonomikoki erakargarriagoa egin eta matrikulazio gehiago egoteko aukera irekitzen duelako. Gardentasun printzipioa ere bermatuta egongo litzateke, Eibarko Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko duelako informazio publiko bitartez.

4. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAN BERRIKUNTZA: Udal Musika eskolako tasetan herritarren diru-sarreraren araberako hobari taula txertatzea eta hobariak handitzea

Udal Musika Eskolan ematen diren klaseei dagozkien tasak epigrafearen barruan, Udal Musika Eskolan eskaintzen diren zerbitzuetako tasa zerrenda dago jasota. Baina tasa hauek eguneratze orokor bat eta berrikuntza bat behar dutela uste dugu.

Hainbat tarifa mota daude jasota (familia ugariena, hainbat kideen matrikularena, guraso bakarreko familiena edo eta familiaren diru-sarreraren araberakoak). Diru-sarreraren araberako tasek %40-60 bitarteko deskontua izaten dute eta Dirusarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familietako adingabeek ere, %75eko deskontua dute matrikuletan.

EH Bilduren proposamenak Musika Eskolako tasak sinplifikatu eta hobariak handitzea du helburu. Gainera, DBE edo RGI jasotzea deskontu edo hobariak jaso ahal izateko frogara ia bakartzat bezela atzean uzteko ordua da eta justizia sozialera bidean, udalaren eskumeneko tasetan behintzat, ordua da familia unitatearen diru-sarrerak kontutan hartzeko. Gainera, beste hainbat tasetan azken urteotan gehitu dugun bezela, familia ugari guztiak ez dira berdinak eta justuagoa da, batetik hau aintzat hartzea baina baita, familiak dituen dirusarrerak ere. Guraso bakarreko familian ere antzeko zerbait gertatu ahal den ere, guraso bakar izateak duen karga ere kontutan hartu beharra dagoela uste dugu eta planteatzen dugun hobariak jasotzeko diru-sarrera taula berrian familia mota hauei keinu bat egingo zaie.

Laburbilduz, indarrean dauden tasak sinplifikatu eta hobari handiagoak gehituko genituzke, beti ere familia edo pertsonen diru-sarreretan oinarritua. Eskatzaile edo matrikula bakoitzaren egoera justifikatu ahal izateko eskatu beharreko dokumentu eta agiriak, baldintza zehatzak, betebeharrak minimoak... teknikariek zehaztu beharko lituzkete. Planteatzen ditugun hobari berriak Usurbilgo Udaleko 11. Ordenantza Fiskalean daude oinarrituta, hain zuzen ere, udal zerbitzu publikoen tasa eta precio publikoetako hobariak arautzen dituen.

Proposamena (adibide bezela 4 urteko umeen Musika Hizkuntza jartzen dugu baina Musika Eskolako aukera eta eskaintza guztietara ere moldatu beharko da proposamena):

- Musika-Hizkuntza (4 urteko umeak)

- Eibarren erroldatuak: 180,60€
- Eibarren erroldatuak: familiako hainbat kideren matrikulak: 135,45€

- o Erroldan ez daudenak: 280,50€

Aurreko erreferentzia tasetan, familia unitateen diru-sarreraren arabera hobariak eskainiko ditu Musika Eskolak, ondoko taula jarraituta:

Bizikidetza-unitatea	%90eko hobaria	%75eko hobaria	%50eko hobaria
1	<14.861	14.861-16.888	16.889-20.265
2	<19.454	19.454-22.021	22.022-26.480
3	<21.211	21.211-24.183	24.184-29.047
4 edo gehiago	<22.832	22.832-26.074	26.075-31.208

Guraso Bakarreko Familien kasuan, bizikidetza unitate erreala +1 izango da bizikidetza-unitatea zutabeko erreferentzia.

Proporzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak beteko lituzke proposamenak udal eskumeneko eskoletako tasetan hobariak txertatzea eta tasak moldatzea udal eskumena delako. Gainera, horrelako hobariak hainbat udaletan indarrean daude. Premia printzipioa ere betetzen du, herritarrentzako tasa justuagoak sortzen direlako, familia unitatearen diru-sarreraren arabera moldatuta. Estrukturalak diren krisi garai hauetan, udal zerbitzuetan hobariak handitzeko apustuak, familien egoera ekonomikoa arindu eta kasu honetan, kultura eta aisialdiaz gozatzeko eskubidea ahalbideratuko lieke hainbat herritarrei. Askotan, orainarte aukera hori izan ez dutenei ere. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasun printzipioak beteko lirateke zeren nahiz eta batetik, matrikula tasa batzuk txikitu, bestetik, eskaintza unibertsalizatu, herritar gehiagorentzat ekonomikoki erakargarriagoa egin eta matrikulazio gehiago egoteko aukera irekitzen duelako. Gardentasun printzipioa ere bermatuta egongo litzateke, Eibarko Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko duelako informazio publiko bitartez.

5. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAN BERRIKUNTZA: Udal Kirol Patronatuko ordainketa eta ikastaroak diren zerbitzuen tasetan herritarren diru-sarreraren araberrako hobari taula txertatzea eta hobariak handitzea

Udal Kirol Patronatua epigrafearen barruan, Udal Kirol Patronatuan indarrean dauden ordainketa (abonuak) motak eta eskaintzen diren kirol zerbitzuetako tasa zerrenda dago jasota. Baina tasa hauek eguneratze orokor bat eta berrikuntza bat behar dutela uste dugu.

Hainbat tarifa mota daude jasota (familia ugariena, hainbat kideen matrikularena, guraso bakarreko familiena, langabetuena, jubilatuen edo eta unibertsitate ikasleena, adibidez). Ordainketa edo abonu hauek eguneratze bat behar dutela uste dugu eta familia unitatearen diru-sarreraren araberrako hobariak txertatzeko ordua da, baita Kirol Patronatuan ere. Baita eskaintzen diren kirol ikastaroetan ere. Hainbat kolektiboren ordainketa edo abonuak mantentzea ordea, komenigarria dela uste dugu, kirol politikarekin zerikusia handia duelako eta garrantzitsua delako adibidez, pertsona nagusi edo jubilatuen edo eta ikasleen kirolaren praktika sustatzea.

EH Bilduren proposamenak Udal Kirol Patronatuko tasak sinplifikatu eta hobariak handitzea du helburu. Gainera, DBE edo RGI jasotzea deskontu edo hobariak jaso ahal izateko frogia ia bakartzat bezala atzean uzteko ordua da eta justizia sozialera bidean, udalaren eskumeneko tasetan behintzat, ordua da familia unitatearen diru-sarrerak kontutan hartzeko. Guraso bakarreko familien kasuan, guraso bakar izateak duen karga ere kontutan hartu beharra dagoela uste dugu eta planteatzen dugun hobariak jasotzeko diru-sarrera taula berrian familia mota hauei keinu bat egingo zaie.

Laburbilduz, indarrean dauden tasak sinplifikatu eta hobari handiagoak gehituko genituzke, beti ere familia edo pertsonen diru-sarreretan oinarritua. Eskatzaile edo matrikula bakoitzaren egoera justifikatu ahal izateko eskatu beharreko dokumentu eta agiriak, baldintzak zehatzak, betebeharrak minimoak... teknikariek zehaztu beharko lituzkete. Planteatzen ditugun hobari berriak Usurbilgo Udaleko 11. Ordenantza Fiskalean daude oinarrituta, hain zuzen ere, udal zerbitzu publikoen tasa eta precio publikoetako hobariak arautzen dituen.

Proposamena (adibide bezala Udal Kirol Patronatuaren Ordainketa epigrafea jartzen dugu, baina Kanpoko Igerilekuen tasetan eta ikastaroak diren kirol zerbitzuetara ere zabaltzea proposatzen dugu):

- **Ordainketak:**

- Familiakoak (21 urtera bitarteko seme-alabak dituztenentzako): 228,10€
- 18 urtetik gorakoentzako: 139,15€
- 18 urtetik beherakoentzako: 82,55€
- Jubilatuentzako: familiakoak: 139,15€
- Jubilatuentzako: 82,55€
- Unibertsitate ikasleak eta Heziketa Zikloak: 82,55€

Aurreko erreferentzia tasetan, familia unitateen diru-sarreraren arabera hobariak eskainiko ditu Udal Kirol Patronatuak, ondoko taula jarraituta:

Bizikidetzak-unitatea	%90eko hobaria	%75eko hobaria	%50eko hobaria
1	<14.861	14.861-16.888	16.889-20.265
2	<19.454	19.454-22.021	22.022-26.480
3	<21.211	21.211-24.183	24.184-29.047
4 edo gehiago	<22.832	22.832-26.074	26.075-31.208

Guraso Bakarreko Familien kasuan, bizikidetzak unitate erreala +1 izango da bizikidetzak-unitatea zutabeko erreferentzia.

Proporzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak beteko lituzke proposamenak udal eskumeneko kirol eskaintzetako tasetan hobariak txertatzea eta tasak moldatzea udal eskumena delako. Gainera, horrelako hobariak hainbat udaletan indarrean daude. Premia printzipioa ere betetzen du, herritarrentzako tasa justuagoak sortzen direlako, familia unitatearen diru-sarreraren arabera moldatuta. Estrukturalak diren krisi garai hauetan, udal zerbitzuetan hobariak handitzeko apustuak, familien egoera ekonomikoa arindu eta kasu honetan, kirolaren praktikaz, osasunaz eta aisialdiaz gozatzeko eskubidea ahalbideratuko lieke hainbat herritarrei. Askotan, orainarte aukera hori izan ez dutenei ere. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasun printzipioak beteko lirateke zeren nahiz eta batetik, tasa batzuk txikitu, bestetik, eskaintza unibertsalizatu, herritar gehiagorentzat ekonomikoki erakargarriagoa egin eta abonatu eta erabiltzaile gehiago egoteko aukera irekitzen duelako. Gardentasun printzipioa ere bermatuta egongo litzateke, Eibarko Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko duelako informazio publiko bitartez.